

Kiroljokoako apustulari batek 6.000 euro irabazi ditu Ligako 4 partidutara egindako euro bateko apustuarekin

Eibarren, 2009ko martxoaren 12a. Kiroljokoak orain arteko sari nagusia banatu du aste honetan, hain zuzen ere, **6.000 euroko saria euro bateko apustuarekin**. Irabazleak Kiroljokoak Gol x 4 Porran proposatutako joan zen asteburuko Ligako 4 partiduen emaitzen iragarpena egin zuen: Barcelona-Athletic (2-0), Real Madrid-Atlético de Madrid (1-1), Villarreal-Espanyol (1-0) eta Osasuna-Sporting (1-2).



Apustu irabazlea **Elgoibarko** (Gipuzkoa) **Kaia tabernan** egin zen joan zen larunbatean, martxoak 7 eta tabernako arduradunak oso pozik agertu dira sari hau banatu izanagatik: "Orain dela hilabete eskas jarri genuen Kiroljokoa Makina eta poztasun handia daukagu sari eder hau eman dugulako, ea honelako sari gehiago ematen jarraitzen dugun", komentatu du Marta Diezek.

Kiroljokoak astero sariak banatzen ditu eta orain arte honako hauek izan dira handienak: 3.136 euro Championseko 3 partiduen emaitza zehatza asmatzeagatik (Donostiako Egia tabernan egindako apustua); 2.604 euro Ligako 4 partiduen 1X2-a asmatzeagatik (Irungo Corner tabernan), 2.070 euro 2. Mailako 2 partiduetan lehenengo eta bigarren zatiko 1X2-a asmatzeagatik (Gasteizko Potxi tabernan) eta 2.064 euro 1. Mailako 2 partiduen emaitza zehatza asmatzeagatik (Bilboko Uriarte tabernan).

Kiroljokoak joan zen **abuztuaren 28an** kaleratu zuen bere kirol apustu eskaintza Eibar eta Gasteizko Apustu-etxeak zabalduz eta tabernetan lehen Apustu Makinak jarritz. Gaur egun, Kiroljokoak **8 Apustu-etxe** ditu (Gipuzkoa: Eibar, Irun eta Tolosa; Bizkaia: Durango, Gernika, Barakaldo eta Santurtzi; Araba: Vitoria-Gasteiz) eta **200 Makina baino gehiago** hiru probintzietako tabernetan. Gainera, **5 Kiroljokoa Txoko** ditu kobratze gunere bezala funtzionatzen dutenak (4 Bilbon eta 1 Donostian).